

ELKARREKIN BAI, LORTUKO DUGU

Ion Muñoa, 17 urte

Zerain

1. lumatxoa:

Hi lumatxo bat haiz,
ni lumatxo bat nauk,
biok gabiltzak noraezean,
haizearen nahieran;
biok gaituk patuaren jostailu,
geroaren esklabu.

Ezin diat jasan!
hain garrantzitsuak izanik
nolatan gaituk hain ezerezak?

2. lumatxoa:

Horrelakoa dun bizitza,
handiak txikia zapaltzen din,
orainak iragana jaten din,
eta etorkizunak oraina irensten din.

1. Lumatxoa

Baina, nik askea izan nahi diat;
askea nire kabuz hegan egiteko;
askea patuari eskuak lotu
eta etorkizuna eraikitzeke;
askea bakarrik bizitzeko.

2. lumatxoa:

Hori ez dun posible ordea,
txikiak indarra izan dezan,
elkartu beharra zeukan;
bi txiki, handi izatera
irits zitezkeen,
askeak izateko, handi izatera.

Lumatxoak:

Orduan elkar gaitezen,
lot ditzagun gure bihotzak.
Txiki izanik handi izateko,
aske hegan egin ahal izateko,
etorkizuna eraikitzeke.